

NAZIOARTEKO LABURMETRAIEN IV. JAIALDIA:

OINARRIAK

1. ZERTAN DATZA JAIALDIA? Laburmetraiak hurrengo gai/en inguruan aritu beharko dira:
 - a. Osasun Komunitarioa
 - b. Eguneroko bizitzaren desmedikalizazioa
 - c. Botiken depreskripzioetik, gizarte-preskripziora
2. NORK PARTE HAR DEZAKE? Edozein pertsonak parte har dezake, bere herritartasuna edozein dela ere.
3. ZENBAT LABURMETRAI AURKEZTU DAITEZKE? Nahi beste laburmetrai aurkez daitezke.
4. ZER EZAUGARRI BETE BEHAR DITUZTE AURKEZTUTAKO LABURMETRAIEK?
 - a. Laburmetraiek gehienez 6 minutuko iraupena izango dute, hasiera eta amaierako karatula ofizialak kontuan izan gabe.
 - b. Ez da onartuko Filmak beste jaialdi edo lehiaketa batean saritua izan den filmarik.
 - c. Edozein etxe komertzial, produktu edo zerbitzuren publizitate zuzena edo zeharkakoa, laburmetraia ez onartzeko arrazoia izango da.
 - d. Lehenengo 3 segundoetan lehiaketaren karatula ofiziala azaldu beharko da. Jarraian, laburmetraiaren izenburua eta zuzendarien izen-abizenak jasotzen dituen karatula agertuko da, eta berauek hurrengo helbidean deskarga daitezke: www.polimedicado.org
 - e. Azken 3 segundoetan amaierako karatula azaldu behar da eta helbide honetan deskarga daiteke: www.polimedicado.org
5. ZEIN HIZKUNTZATAN AURKEZTU DAITEZKE LANAK? Laburmetraiak edozein hizkuntzatan aurkeztu daitezke. Erabilitako hizkuntza gaztelera edo ingelesa EZ den kasuetan, azpitoluak sartu behar dira aurretik aipatutako bi hizkuntzetako batean. Epaimahaiak aintzat hartuko du entzuteko desgaitasuna duten pertsonen ulermena errazteko helburuarekin gaztelera zein ingelesezko azpitoluen erabilera.
6. NOLA PARTE HARTU? Parte hartu ahal izateko, geure web orrialdean (www.polimedicado.org) izena eman behar duzu eta 'Festival' izeneko atalean agertzen den formularioa bete. Formulario honetan, zure izen-abizenak, telefonoa eta e-maila adierazi behar dituzu. Gainera zure IFZ (espainiar nazionalitatea izaneko), AIZ (Espainian bizi zaren atzerritarra bazara) edo Pasaporte zenbakia (Espainiatik kanpo bizi diren atzerritarrentzat) idatzi behar dituzu. Laburmetraiak hainbat zuzendari baldin badauzka, bakoitzak bere IFZ, AIZ edo Pasaporte zenbakia adierazi beharko du. Honetaz gain, laburmetraiaren izenburua eta honen sinopsi edo laburpena. Lan guztiak festival@polimedicado.org posta helbidera bidali behar dira www.wetransfer.com -en bidez.

7. ZEIN DA LANAK BIDALTZEKO EPEA? Zure lanak 2017ko maiatzeren 20tik hasita urriaren 28ko 24 orduak arte bidal ditzakezu. Behin lanak jasotzeko epea amaituta, sistema bi astez zabalik egongo da publiko orokorrak botoa eman dezan. Jarraian, bozken zenbaketa egingo da publikoaren saria egokitzeko eta epaimahaiak lehen saria eta accesita erabakiko ditu. Sariak 2017ko azaroaren 17an Gasteizen izango den sari-banaketa jaialdian banatuko dira.
8. SARIAK:
- Lehen saria 1500 €
 - Publikoaren saria 1000 €
 - Hirugarren saria 500 €
9. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA: Epaimahaiaren erabakia Gasteizen 2017ko azaroaren 17an ospatuko den sari-banaketa jaialdian aditzera emango da. Epaimahaiaren irizpideen arabera kalitate nahikorik ez duten lanik aurkeztuko balitz, sariak banatu gabe gera daitezke. Irabazleen hautaketa epaimahaiari dagokio eta hartutako erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da.
10. LEGEZKO ESKUBIDEAK. Autoreek, jaialdian parte hartzeagatik, euren lanaren titulartasuna *Laboratorio de Prácticas Innovadoras en Polimedicación y Salud* elkarteari doako eta borondatezko eran ematen diote. Edozein kasutan, lan hauek creativecommons 3.0 **Aitortu - EzKomertziala - BerdinBanatu (by-nc-sa)** lizentziapean babestuta geratuko dira.

Babeslea:



Osatzen- Sociedad Vasca de Medicina de Familia y Comunitaria
